

EUSKARA IKASLEENDAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA: OINARRIAK

1.- Oinarrien xedea. Oinarri hauen xedea da euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren Malerrekako herritarrei diru laguntza emateko modua arautzea.

2.- Diru laguntzaren gaiak. Diruz lagunduko dira 2017ko urriaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikula gastuak. Diruz lagunduko dira ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta *on line* egindakoak.

Ez dira diruz lagunduko joan-etorri gastuak, liburu eta material gastuak, barnetegietako egoitza gastuak eta ikastaroan edo euskaltegian ikasleak jarduera akademikoaren osagarri moduan egindako beste edozein jarduerengatiko gastuak. Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra egin ahalko du.

3.- Onuradunak. Diru laguntza hau hartu ahal izanen dute ondoko baldintza hauek betetzen dituztenek:

1. Gutxienez 16 urte izatea.
2. Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako batean erroldatua egotea.
3. Diruz lagundutako ikastaroan asistentzia % 85etik goitikoa izatea. Ez dira kontuan hartuko gaixotasunen, mediku kontsulten edo araturiko azterketetara joatearen ondorioz behar bezala justifikaturiko faltak.
4. Eskatzen den dokumentazioa ezarritako epean aurkeztea.
5. Malerrekako Mankomunitatearekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea (Mankomunitateak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori, eta behar den eginbidearen bitartez jasoko).
6. Laugarren oinarrian zehazten diren egoeretako batean egotea.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira administrazio publikoren bateko langileak izanik, euskalduntze plan bereziren batean sartuak daudenak.

4.- Diru laguntzaren ezaugarriak eta zenbatekoa. Diru laguntzak banatzerakoan kontuan hartuko da mankomunitatearen 2018ko aurrekontuetako 1 3350 48002 kontu sailean esleitutako diru kopurua, 1.500 €.

Diru laguntzak modu honetan banatuko dira:

1. Langabetuek, erretiro-pentsiodunek eta ikasleek¹ matrikula gastuen % 30eko diru laguntza jasoko dute; gehienez ere 125 euroko laguntza hartu ahal izanen dute.
2. Familia unitateko kide bakoitzaren urteko diru sarrera gordinak 12.000 euro baino gutxiagokoa dutenek matrikula gastuen % 50 jasoko dute; gehienez ere 200 euroko laguntza hartu ahal izanen dute.
3. Familia unitateko kide bakoitzarengatik diru sarrera gordinak LGS —Lanbide arteko Gutxieneko Soldata— x 14 hilabete baino gutxiagokoa dutenek

¹ Laguntza hau jasotzeko beharrezkoa da eskatzailea egoera horretan egotea gutxienez ikastaroak iraun duen bitartean.

(10.302,60 €) matrikula gastuen % 80 jasoko dute; gehienez ere 275 euroko laguntza hartu ahal izanen dute.

Diru-laguntzek deialdiari esleitu zaion diru-kopurua baino gehiago jotzen badute, aurrekontuetan gehienez ere aurreikusi den diru-esleipena behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean zatituko da, deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean betiere.

Baldintza guztiak betetzen dituzten eskaerak erantzun ondoren aurreikusitako kontu-sailean kreditu erabilgarririk gelditzen bada, kopuru hau eskatzaille guztien artean modu proportzionalen banatuko da, beti ere, gain-finantziatorik ematen ez bada.

Inork ikastaro bat baino gehiago finantzatzeko eskaera aurkeztuz gero (aipatutako denbora tartean ikastaro bat baino gehiago egin duelako), kosterik altuena izan duen ikastaroa bakarrik hartuko zaio aintzat.

5.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epea. Eskabideak eta gainerako dokumentazioa aurkezteko azken eguna: **2018ko irailaren 25a.**

- a. Eskaera orria behar bezala beteta eta eransten den ereduari jarraituta.
- b. Nortasun agiriaren fotokopia.
- c. Erroldatze agiria.
- d. Matrikularen ordainagiria.
- e. Euskaltegiaren agiria, asistentzia eta aprobetxamenduari buruzko datuak ematen dituenak.
- f. Aitorpena, helburu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako diru-laguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebatzteke edo ebatzita dauden; azkeneko kasu horretan, erantsiko da kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia.
- g. Langabetuen kasuan, Gizarte Segurantzak emandako bitza laboralaren agiria.
- h. Ikasleen kasuan, ikasketei buruzko agiria, gutxienez ikastaroak iraun duen denborari dagokiona.
- i. Erretiro-pentsiodunen kasuan Gizarte Segurantzak egindako ziurtagiria, erretiroa hartua duela ziurtatzen duena.
- j. Familia unitateko kide bakoitzarengatik urtean 12.000 euro baino gutxiagoko diru sarrera gordina dutenen kasuan: 2017ko ekitaldiari dagokion errenta aitorpena edo, hori ezean, diru sarrerei buruzko ziurtagiria. Ez badute halako agiririk aurkezterik, zinpeko aitorpena aurkeztu beharko dute, baldintza hori betetzen dutela zin eginez.
- k. Familia unitateko kide bakoitzarengatik diru sarrera gordinen batz bestekoa LGS (Lanbide arteko Gutxieneko Soldata) x 14 € baino gutxiagokoa dutenen kasuan: 2017ko ekitaldiari dagokion errenta aitorpena edo, hori ezean, diru sarrerei buruzko ziurtagiria. Ez badute

halako agiririk aurkezterik, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, baldintza hori betetzen dutela zin eginez.

Errenta aitortpena bereizita egiten duten bikoteen kasuan, eskatzaileak bikotearen errenta aitortpena eta familia-liburua aurkeztu beharko dute.

Dokumentazioa Malerrekako Mankomunitatean (Zazpigarutze, 2, beheiti. Doneztebe) aurkeztu behar dute, edo urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein lekutan.

6.- Aurkeztutako dokumentazioan egindako okerrak zuzentzea. Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emanen zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez baditu, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Malerrekako Mankomunitateak horretarako ebazpena egingo du.

7.- Ebazpena. Deialdi honetako diru laguntzak esleitzeko erabakia Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko lehendakariak hartuko du, Euskara Batzordearen irizpena ikusita. Erabaki hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie.

8.- Diru laguntzaren ordainketa. Diru laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, haiek emateko erabakia hartu ondoren.

9.- Bateragarritasuna. Deialdi honetako diru laguntzak bateragarriak dira bertze erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada.

10.- Datuen babesa. Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia beterik, eskatzaileari jakinarazi nahi zaio bere datu pertsonalak Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatearen fitxategietan jasoko direla eskatutako zerbitzuak kudeatzeko eta Mankomunitatearen berezko eginkizun legalak burutzeko. Interesdunak kontrakorik adierazten ez badu, datuak epe zehatzik gabe kontserbatuta izan daitezke.

Zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa denean edo/eta legediak horrela agintzen duenean bere datuak Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko sail desberdinei, Nafarroako Gobernuari, eta Mankomunitatearekin harremana duten beste erakundeei, bai publikoak bai pribatuak komunikatuak izan daitezke.

Mankomunitateak ematen duen zerbitzua edo/eta dokumentu hau onartzeak esan nahi du eskatzaileak onespina eta baimen zehatza ematen duela, adierazitako helburuen baitan, bere datuak tratatzeko eta komunikatzeko. Bere esku dago sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaritza eskubideak erabiltzea. Era berean, emandako baimena edonoiz ezeztatu dezake, baita gai honi buruzko beste eskariren bat egin ere. Horretarako Tratamenduaren Erantzulearengana jo

beharko da, helbide honetan: Malerrekako Zerbitzu Orokorraren Mankomunitatea, Zazpigarutze, 2, beheka, 31740 Doneztebe/Santesteban (Nafarroa) edo posta elektronikoa honen bitartez: mancomunidad@malerreka.infolocal.org. Eskatzaileak, eskariari emandako erabakiarekin ados ez badago edo erreklamazio bat jarri nahi badu, kontrol aginte eskudunera jo dezake, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegoa (www.agpd.es).

11.- Diru-laguntzen itzulketak. Diru-laguntza zati bat edo osoa itzuli beharko da ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Diru-laguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b) eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Objektu bera duten eta bateraezinak diren diru-laguntzak aldi berean jasotzea.
- d) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

12.- Auzibidea. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

13.- Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita da epe hori.

**Euskara ikasleentzako diru laguntzak:
Eskaera orria**

Eskatzailearen datuak:

- ✓ Izen-abizenak:
- ✓ NAN:
- ✓ Helbidea:
- ✓ Posta kodea:
- ✓ Herria:
- ✓ Telefonoa:
- ✓ E-posta:
- ✓ Kontu korrante zenbakia:

Euskara ikastaroei buruzko informazioa:

- ✓ Euskaltegia:
- ✓ Urratsa(k):
- ✓ Ikastaro mota:
 - Estentsiboa
 - Trinkoa
 - Barnetegia
 - On line
- ✓ 2017ko urriaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitarteko matrikula gastuak

€

Data eta sinadura

EUSKARA IKASLEENDAKO DIRU-LAGUNTZA: ZINPEKO AITORPENA

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
- Laguntza eskaera honetaz gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko edo pribatuk emana.
- Diru-laguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi diru-laguntza eskaerarik eginez gero, Malerrekako Mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)